



nian gizonen espetze batean sartu gintuztela. Aldaketa zaila izan zen, bai; zuhaitzez, zelaiz eta lorez beteta zegoen eta esparru guztitik, erraztasunez mugitu ahal ginen espetze batetik heldu ginen. Madrilen atea eta ziegak irekita zituen errespetuzko modulu batean ginen, asteburuetan kanpora ateratzeko baimenak zituzten eta lehen aldiz espeteratutako emakumeak edo delitu ekonomiko txikiak zituztenak ziren nire bizilagunak. Mas de Enric-eko espetzea, aldiz, gizonen zelaia da, eta emakumeen modulu bakarra du. Zementu anitz du, horma gehiegi, eta funtzionario baten laguntzarekin bakarrik zeharkatu ahal dira beti itxita dauden atea. Segurtasun neurriak zorrotzak dira.

2016ko azaroan solastatu nintzen zurekin azken aldiz, Berrria- n egindako elkarrizketa batean: Kataluniako Legebiltzarreko lehendakaria zinen eta Mariano Rajoy zen Espainiako presidentea. Kataluniako eta Espainiako gatazka konpontzeko Espainiako Estatuan elkarrizketarako prest zegoen gobernu baten beharra aipatu zenuen. Zer deritzozu Pedro Sanchezen gobernuaz?

Ez dut inongo konfiantzarik Pedro Sanchezen gobernuarekin, baina argi dago elkarrizketa eta negoziaketatik gertuago dagoela, apustua estrategikoa den arren. Baina lehen aldiz lortu dugu Espainiako Gobernuak onartzea Kataluniaren eta Espainiaren artean gatazka politikoa dagoela eta, irtenbide politikoa bilatzeko gobernuen arteko negoziazio mahaiaren esertzea. Gainera, indultuak onartu dituzte, hori ere apustu estrategikoa izan da, Europar Batasunaren aurrean Espainiako justiziaren akatsak zuzentzeko. Edozein modutan, lehen urratsa dira: orain errepresioa bukatu eta gatazka konpontzeko erabaki politiko gehiago behar dira, amnistia legea eta autodeterminazio erreferenduma.

Puigdemont presidentearen alde bakarreko erreferenduma bide bakarra zela erraten zenuen orduan. Garai hartan, Espainiako Gobernuari Eskoziakoa bezalako galdeketa lotesle bat egiteko negoziaketa prozesua hemezortzi aldiz eskatu ondotik, argi genuen alde bakarreko erreferenduma zela bide bakarra. Hala ere, argi dago ez genuela uste estatuak indarkeriarekin eta errepresio ikaragarri, anker eta pentsaezin

horrekin erantzungo zuenik. Banekien Espainiako Estatuaren demokraziaren kalitatea baxua zela, baina ezin nuen imajinatu Espainiako Polizia herritarrei eraso egiteko gai izango zenik, boto-papera hautetsontzian jartzeagatik.

Tira, errepresioa ez da kontu berria Espainiako Estatuan. Euskal Herrian aspalditik salatu da.

Bai, Euskal Herrian urratutako esku-bideak ezagutzen genituen arren, ez genuen pentsatzen Katalunian errepikatuko zenik. Are gutxiago jendea bozkatzera joateagatik. Modu baketsuan bozkatzera joan ziren herritarrei eraso egitea pentsaezina zitzaigun. Eta gero, ez nuen espero eztabaida bat legebiltzarrean onartzeagatik hamaika urte eta erdiko kartzela zigorra jasoko nuenik. Tira, euren errepresioak Kataluniako herriaren independentzia irrika indartzeko bertzerik ez du balio.

“Orain errepresioa bukatu eta gatazka konpontzeko erabaki politiko gehiago behar dira, amnistia legea eta autodeterminazio erreferenduma”



Aldebakarreko bideak ez du funtzionatu. Uste duzu buruzagi independentistak urrunegi joan zinetela?

Ez, gure herriaren gehiengoak aldarrikatzen zuena egin genuen: etorkizuna erabakitzeko hautetsontziak jarri. Autodeterminazio erreferenduma egin genuen eta hori arrakasta kolektiboa izan zen, beti oroitu eta aldarrikatuko dugu. Gero, bere indar errepresibo guztia aplikatu zuen estatu batekin topo egin genuen.

Badago uste duenik Kataluniako Errepublikaren aldarrikapenaren ondotik estrategia falta zegoela. Zer deritzozu?

2017ko udazkenaren ondotik independentisten kontrako errepresio bortitza abiatu zen, espeteratze eta erbestertzeekin, eta horren ondotik ezinbertzeko izan da estrategia elkarbanatu bat



eraikitzea, Kataluniaren independentziarantz aurrera egiteko. Kataluniaren eta Espainiaren arteko gatazkaren onarpena eta gatazka politikoki konpontzeko Espainiako Gobernu negoziaketa mahaiaren esertzea lortu dugu. ERCK lan ona egin du zentzu horretan.

Indultuak izan dira azkenean zuen askatasunaren giltza.

Pertsonalki, ez nuen indultuetan pentsatu nahi izan bideratuko zirela jakin nuen arte. Behin jasota, poztu nintzen, herritarren alde, gehiago egin dezakedalako espetxetik kanpo barruan baino, eta familia eta maite nauten pertsona anitzen sufrikarioa bukatu delako horrela. Espetxean sartu nintzenean, nire amak sekula ahantziko ez dudana esaldia erran zidan: “Askatasuna berreskuratzen duzunean hilda egonen naiz”. Eta esaldi horri aurre egitea izan da nire erresistentzia motorra. Era berean, argi dago indultua adabakia



“Ez nuen espero eztabaida bat legebiltzarrean onartzeagatik hamaika urte eta erdiko kartzela zigorra jasoko nuenik”



dela, espetxeratuta ginen bederatz lagunentzat irtenbidea. Baina, erbesteratuen eta Katalunian errepresaliatuta dauden hiru mila laguneko egoera ez du konpondu.

Zer deritzozu negoziaketa mahaiatz?

Erabat eszeptikoa naiz, baina, ezinbertzekoa da. Ezin naiz fidatu, historiak egiaztatzen du Espainiako Gobernuak konpromisoak sistematikoki urratzen dituela. Hala ere, ezin dugu sekula elka-

rrizketaren bandera bertan behera utzi, horrek sinesgarritasuna ematen digu barruan zein kanpoan. Independentistak ez diren katalan anitz dago eta ikusi behar dute guk ez dugula elkarriketaren bidea abandonatuko. Era berean, jakin-mina dut Espainiako Gobernuak mahai gainean jarriko duen proposamenari buruz. Gurea, jakina da: amnistia eta autodeterminazioa. Eta badakit Pedro Sanchezek erran duela hori ez dela sekula gertatuko, ez dugula bozkatuko. Baina espetxeratuek zigor osoa beteko genuela ere erran zuen, eta ez da horrela izan.

Politikarako jauzia egin aurretik ANC Kataluniako Biltzar Nazionalako presidentea izan zinen. Nola ikusten duzu mugimendu independentista gaur egun?

ANCko presidentea nintzenez elkartearen helburua zen mugimendu independentista batzea, testuingurua bestelakoa

zen, independentziaren aldeko gehiengorik ez zegoen eta gobernua autonomista zen. Mugarri handiak lortu genituen, bereziki oroitzen dut giza katearen arrakasta, herrialdea puntatik puntara lotuz. Gaur egungo testuingurua desberdina da, ANCk egiten dituen proposamen batzuk konpartitzen ditut eta bertze hainbat ez. Edozein modutan, mugimendu independentistak indartsu jarraitzen du, eta horren adibidea da azken hauteskundeetan botoen %50a baino gehiago independentziaren aldekoa izan zela. Kataluniako Biltzar Nazionalak ordezkari politikoak bultzatzen jarraitu beharko luke.

ERC eta Junts alderdien arteko desberdintasunek nola eragin diete Puigdemonten bide orriaren sinestean zuten milaka laguneri?

Alderdien artean desberdintasunak izan dira beti, erran bezala, horregatik jaio zen ANC: helburu berdina konpartitzen zuten artean adostasun espazio bat eraikitzeko. Baina, gaur egun ere jendea mobilizatzea aldarrikatzen denean, egin egiten da. Helburua konpartitua denean, desberdintasunak ahanzten dira.

Bide orri argirik gabe, badago uste duenik mugimendu independentista umezurtz dagoela. Konpartitzen duzu?

Inolaz ere ez, mugimendu independentista ezin da umezurtz egon, bultzatzen duena jendea bera baita, eurak dira protagonistak. Egia da jasotako errepresioa kolpe gogorra izan dela, baina mugimenduak bizirik jarraitzen du. Pandemiak ere ez ditu gauzak erraztu, ez du utzi jendea nahi bezala mobilizatzen. Eta, hala ere, aurtengo Diada aparteko mobilizazioa izan da, pandemia garaian egin den jendetsuena. Ez dut inor ezagutzen duela lau urte independentista izanik gaur egun izateari utzi dionik. ●



tradebi@tradebi.com